

## Juan Antonio Urbeltz

# “Euskalduntasuna noraezean dago”

Iruñea, 1940. Folklorista. Euskal dantza eta musika tradizionalen aritua eta aditua. Donostian eman du ia bizitza osoa, aurrean zendu den Marian Arregi emazte eta musikariarekin batera. Goizaldi taldean aritu zen 1958an eta Argia taldean ari da 2018an. Dantza ikertzaile porrokatua. Lan frankoren egile saritua. *Gipuzkoako dantzak* liburuaren egile Juan Ignacio de Iztuetaren figura “dantza”-n jarri du, *Juan Ignacio de Iztueta y yo* liburua (Txertoa, 2018) argitaratu ondoren. Elkarrizketan pluralean aritu zaigu: “Marian eta bion izenean mintzo naiz, bizitzan egindako guztia elkarrekin egin baitugu”.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

### Zein da Juan Ignacio de Iztueta y yo liburuaren helburua?

Juan Ignacio de Iztuetaren ezagueran urrats bat gehiago aurrera ematea, haren izaera eta aiurria argitzea. Mundu apologetiko zalantzazko batek “gure pertsonaia”-ren errealtate historikoa –haren jatorria– nahastu baino ez du egin. Horrexek dantzei buruzko haren liburuan ikerketa-alor berri bat zabaltzera “behartu” gaitu; Iztuetak idatzi zituen edukiak eta formak aztertu ditugu, azaldu zituen gai guztien iturburuak ikertu, esan zuen guztia kontuan hartu, baita isildu zuena ere. Horiexek dira gure peskizek argitzea bilatu dutena.

### Liburuak zer berri ekarri dio dantza alorrean zuk egindako lan eskergari?

Honezkero nahikotxo urte bete dut, beraz, euskal dantzaren aztertzeari eskaini diogun biziardia ixteko modu egokia da. Ahantzi gabe, gaiaren beraren zabalera Europako inauteriak eta beste dantza tradizionalak ikertzera eramán

gaituela ezinbestean. Areago, Iztuetaren adiurrea dela eta, baita eman zaion garrantzia soziala ere kontuan hartuta, berebiziko betebeharrak iruditu zaigu berari buruz izan diren balorazioen gaineko kontrako posizioetatik pertsona hori aztertzeari. Iztuetaren biografia “garbitu” beharra zegoen, bere gogoak, aldarreak eta munduan egoteko bere modu erabakitekoak azterketa historiko zorrotzaren galbahetik pasa behar zuten.


### Nor izan zen Juan Ignazio de Iztueta?

Zaldibian jaio zen 1767an. Iztueta pertsona berezia izan zen, berezitasun hori bizitza osoan pairatu zuen psikopatia edo soziopatiaren ondoriozkoa izan zen, *Nortasun antisozialaren gaitza* bezala ezagutua. Gaitz eta desoreka hori pairatzen dutenek inguru hurbilekoen aurka jo ohi dute. Iztueta [Gipuzkoako] Gaintzako Martín Antonio de Aldasoro eskribauaren etxean egindako lapurretagatik auzipetua izan zen lehen aldikoz, Zaldibiako José Ignacio de Echave bika-

rioaren eskariz. Inkisizioaren Tribunalak zabalduetako lehen prozesuan bere gaitasun manipulazionala agerian jarri zuen, baita María Joaquina de Linzoain bere emaztearekiko izan zuen joera krusdela eta indiferentea ere. Epaitua eta espetxeratua izan zen, baina ez zuen inolako alhadura edo errurik azaldu bere jokaerengatik, hau da, ez zeukan portara arduratsu izatearen inolako ideiarik, arduragabe totala zen.

### Hori konstatatzeko oinarri sendoak behar dira.

Noski. Gaitz edo trastorno horren pairatzaileak planteatu dezakeen ekibokoa Robert D. Hare doktore kanadiarrak azaltzen du. Espezialista horren arabera, 40 urte bete ondorenean, zenbait kasutan joera psikopatikoa gutxitu daiteke, baldin eta ez baditu muturreko ekintza bortitzak egin izan. Hasi berria duten “heldutasun” horrek laguntzen dio gaixoari, jendeak pertsona hori beste gisa batez ikusten eta hartzen. Horregatik baina, gaixo horiek



ez diote direna izateari uzten. Zaldibiarren kasuan, hamalau urteko kartzela zigorra bete zuen bitartean, beta izan zuen bere nortasuna “egokitze”ko. Areago, bigarrenez ezkondu zen, *Kontxsehi*-rekin, [Concepción de Bengoechea] eta horrek bizitzan hartu zuen norabidean eragin izan zukeen. *Kontxsehi*-k, nolabaiteko oreka eman zion alde edo moldez. Hala ere, Hare doktoreak dioenez, pertsona horien nortasuna ez da funtsean aldatzen.

### **Gipuzkoako dantzak liburuaren kritika laburra egin duzu. Zein da kritikaren funtsa?**

Iztuetak doinu zaharrei buruz egiten duen azalpena ez dagokio Gipuzkoan behiala dantzan egiten zen ondareari. Gure ustez, bere ekarpenak haren aurreko *Danzas de cuenta*-ko maisu batenak dira, ziur aski, Jesusen Lagundiko ikastetxe batean irakatsi zuen maisu batenak. Agian, ikasketa haiek ez zeuden araututa, baina maisu hura Azpeitian jardun zate-

keen Jesusen Lagundia kanporatu zuten urte berean; 1767an, Iztueta jaio zen urtean. Jesusen Lagundiko ikastetxeak, XVI.etik XIX.era bitartean, Europa eta Amerikako elite intelektual guztien hezitzaileak izan ziren. Euren ikasgaien artean Dantza zegoen, Erretorika ikasgaiaren barnean egon ere. Dantzaren trebakuntza *danzas de cuenta* delakoetan espezialistak zirenen esku zegoen. Ikasgai horren adibide oso interesgarria da Juan Esquivel Navaroren *Discursos sobre el Arte del Dançado* (Sevilla, 1642) eskuko liburuxoa. Berean, besteak beste, dantzen pausoak daude, *cuatropeados* izenekoak. Iztuetaren liburuan dauden *cuatro pelos* pausoen antzekoak.

### **Zein balore du Iztuetaren Gipuzkoako dantzak liburuak?**

Apartekoa. Liburuak *Danzas de cuenta* metodoa jasotzea ahalbideratu zuen, liburu bikaina da. Iztuetaren edizio hori gabe, metodoa galdua zatekeen. Baina, esan bezala, liburuaren ondarea ez da berea.

### **Liburuaren izenburua iradokigarria da: Juan Ignacio de Iztueta y yo. Zergatik Iztueta eta zu?**

Iztuetaren lehen emazteak, María Joaquinak, Linzoain abizena zuen, Erro ibarrekoa. Nire sendia handik dator. Bestalde, María Joaquinaren arbasoak Azpirozetik datoz, Larraun bailaratik, eta handik heldu dira ere Marianen arbasoak, nire emaztearenak, Arregi abizenekoak. Aldi berean, Marian eta bion arteko lotura a-kausalak daude, Ureta toponimian oinarrituta, baita Urbeltzia eta Harregy etxeetan ere, Baxenabarreko Heleta herrian daudenak.

### **Hain zuen ere, Sincronicidad, Predestinación y Vínculos acausales azpigitulua du liburuak. Zer dira kontzeptu horiek?**

Hiru kontzeptu horiek ideia berberari lotzen zaizkio, eta da: euren arteko kausa-efektu loturarik ez duten aldibereko bi edo egitate gehiagoren arteko agerpena, alta bada, lotuta daude kontzeptuaren esanahiaren bitartez.

**Marian Arregi, zure emaztea, aurten hil da. Nor izan da zuretzat? Nor izan da euskal kulturaren eta zehatzago dantzaren inguruko zure lanetan?**

Marian nire emazte maitea izan da – joana den arren, berarekin bizitzen jarraitzen dut egunero-. *Kaskabilo* baten antzekoa zen, oro betetzen zuen berezko xarma eta txinparta baten jabe. Halaber, sortzeko aparteko gaitasunak zeuzkan, musika intuiziorako tenperamentu eta jenialtasuna. Bere bizitza luzean doinu sorta zehatzak sortzeko gai izan zen, dantzagarrriak ziren une berezitarako destinatuta. Euskal musika tradizionalaren alorrean Mariaren ekarpena bere- berezkoa da, ez du parekorik.

**Liburu honekin folklorista lanean egin duzun ibilbidea bukatutzat jo al daiteke?**

Esango nuke baietz, neurriren batean behintzat. 1959. urtean hasi nintzen dantzari bezala, eta laster 60 urte beteko ditut dantzaren ikerkuntzan. Ziklo bat bete dut, espero dut beste ikerlari eta adituek osatua izatea.

**Zer iritzi duzu gaur egungo dantza tradizionalari buruz?**

Dantza berriei zentzu edota forma emateko interesatu zaidan munduak, hau da, gure dantza tradizionalen funts sinbolikoak, ez dirudi gaur egun interes handia sorrarazten duenik. Horrek jendartean nolabaiteko ardura sortu beharko luke, eta batez ere, gure agintariei kezka modukoren bat eragin beharko lieke. Izan ere, kontuan har dezagun beste zenbait herritan nola ari diren, Hungaria edota Kaukasoko nazioetan zein ongi jaso eta interpretatu izan dituzten dantza tradizionalak. Dantzak euren identitate kulturalaren berebiziko parte dira. Gure kasuan, aldiz, utzikeria dela, kultur noraeza dela, edota sorkuntza arloan dagoen arduragabekeria dela eta, dantzak galduko ditugu, eta ez ezerk ez inork ditu ordezkatuko.

**Bat al zatoz egungo euskal dantzen ebo-luzioarekin?**

Ez. Euskal dantzen bilakabidearekin ez naiz baikorra. Dantza tradizionalak eta berauek sortutako mundu kulturak –neurri batean dantzak kontserbatu dira– dantza berriak sortu eta eszenara eramatea ahalbidetzen du. Ez dut nire burua goraipatu nahi, baina Marian eta



» “Iztuetaren biografia ‘garbitu’ beharra zegoen, bere gogoak, aldarreak eta munduan egoteko bere modu erabatekoak azterketa historiko zorrotzaren galbahetik pasa behar zuten”

biok dantza sorta bikaina ibilarazi dugu Argia taldean, hala nola, *Eaurtako neska-dantza*, *Irradaka*, *Muriska*, *Almute-dantza*, *Iruñeko ezpata-dantza*, *Elgoibarko ezpata-dantza*, *Andoaingo ezpata-dantza*, *Jorge Oteizaren apostoluen aurrekua*, *Galaiena esku-dantza*... Edonola ere, dantzaren egoera kezagarria da, ni behintzat kezkatzen nau, ezin dugu ezerezkeria sorkuntza eredutzat hartu. Dantza tradizionalaren alorrean badakit zer den sortzea; ordea, ez dut ulertzen zen den “eboluzionatzea”.

**Noiz uzten dio dantzak tradizionala izateari, eta noiz bihurtzen da modernoa?**

Dantza tradizionalen lengoia ibilbide luzekoa da, modernoa da berez, ez du “modernizatu” behar.

**Dantza filma egin da aurten. Telmo Esnal zuzendaria, Koldobika Jauregi produktzio diseinatzailea eta zu, Juan Antonio**

**Urbeltz koreografoa, zarete lan horren egile nagusiak. ARGIAko Gorka Bereziartua kazetariak *Esentzien koreografia*-tzat jo du filma.**

*Dantza* filmean *esentzien koreografia* ikusi izatea funts metaforikoa kontuan hartzea da, izan ere, Telmo Esnal eta Koldobika Jauregik nire tesietan presente dagoen intsektuen mundua aintzat hartu dute, zenbait inauteri eta ezpaten dantzetan era metaforikoan presente daudenak.

**Filmaren koreografoa zaren aldetik, zer iradoki dizu Bereziartuaren balorazioak?**

Niretzat ohorea da, baita interesgarria dantza zinemara ere eraman izana. Ez dantza bere horretan eraman izanagatik, zentzu transzendentea ematen dioten metaforak ageri izanagatik baizik.

**Zer ekarri du filmak dantza mundura? Edo zer eman dio dantzari berari?**

Urte askotako lanaren onarpena eta aitortpena aditzera eman ditu filmak. Areago, munduari edota jendeari dantza eza-gutzeko aukera eman dio, ez ulertu ohi diren “dantza tradizionalak” legez, “dantzen erradiografiak” gisara baizik. Dantzak X izpietan hartu izan balira bezala.

**Zein une historikoan dago euskal dantza?**

Ez da guztiz indarberritua. Gaur egun badago eredu “garaikidea”-k jotako sorkuntza gaitza, arestian aipatu duan noraeza kulturalaren adierazle. Azken ehun urteetan, dantza tradizionala dantza klasikotik hartutako ereduek “kutsatua” izan da, eredu tradizionala ezabatzeraino, ez du probetxuzko ezer utzi, nolabait esanda. Orain, aurreku txapelketatik eratorritako eredu “garaikide” berriak ordezkatzen du tradizionala, horrek dantzaren alorrean ez du egundo parekorik izan. *Agurra* delakoa dantzaren sor-muina bailitzan ari dira.

**Dantzaren egoerak islatzen ote du euskal kulturak eta euskarak orobat bizi duten egoera?**

Zalantzarik gabe. Euskalduntasuna noraezean dago, egungo egoera eraman-gaitza da. Juan Ignacio de Iztuetaren izaera nahasia, haren desorientazioa, bizi dugun eredu paradigmaticoaren segida da. Ezin zen besterik izan, Iztuetaren eredu lotuta dago egungo egoera politikoari eta gure herriaren nazio konzientzia ezari. ■

## “CESARE NEGRIREN OBRAK IPURDI-BISTAN UTZI DU IZTUETA”



Urbeltzek dioenez, Iztuetak publikatu zituen doinu zaharrek dantza tradizional “kaotiko” interesgarriak iradokitzen dituzte. Urbeltzek *Bailar el Caos. La danza de la osa y el soldado cojo* saioan (Pamiela, 1994) idatzi zuenaren ideia eman digu aditzera:

“Dantza kaotikoaren eredu zoragarria *Kuarrentako erregela* da. Bere egituraren irregulartasuna bi aldiz agertzen da, alde batetik musika-esaldi ezberdinen neurri irregularra dago, hemezortzi gutzira, eta irregulartasun horren ondoren, esaldi bakoitza berriz zatitzen da dantzatua izan ahal izateko. Hona adibide edo hartxo hau:

1 <sup>a</sup>	15 neurri	8+5+2	10 <sup>a</sup>	13	4+6+3
2 <sup>a</sup>	12	6+6	11 <sup>a</sup>	10	6+4
3 <sup>a</sup>	11	5+2+4	12 <sup>a</sup>	14	8+6
4 <sup>a</sup>	12	8+4	13 <sup>a</sup>	12	6+6
5 <sup>a</sup>	13	5+2+6	14 <sup>a</sup>	8	8
6 <sup>a</sup>	11	5+6	15 <sup>a</sup>	14	8+6
7 <sup>a</sup>	11	4+3+4	16 <sup>a</sup>	12	6+6
8 <sup>a</sup>	9	4+5	17 <sup>a</sup>	8	8
9 <sup>a</sup>	15	4+6+5	18 <sup>a</sup>	18	6+6+6

Errepara dezagun lehen esaldian: 15 neurri edo konpas. Bederatzi-garrenean, berriz, neurri berekoa. Bada, lehena dantzatua izateko 8+5+2 neurritan azpi zatitzen da, aldiz, bederatzigarrena 4+6+5 neurritan. Gainerako esaldietan ere irregulartasunak daude.

Dantza baten ikasketak ahalegin fisiko handia eskatzen zuen, eta oroimenezko proba izugarria da. Oroimena eta dantza Hesiodoren *Teogoniaren* erreferente nagusiak dira. Hesiodok –poeta greziarra– kaosa jartzen du lehen lekuan dago. Ondoren, Geak, Uranorekin oheraturik, Mnemósine erditzen du –oroimena–, honek bederatzia gauetan kopulatu zuen Zeusekin eta batagite horretatik bederatzia Musak jaio ziren. Horietako bati, Terpsíkoreri, dantzaren jabetasun esanguratsua eman zitzaion. Dantza, beraz,

oroimenaren alaba da eta Kaosaren biloba. Garbi dago, *Danzas de cuentas* delakoaren eredu, ohiz kanpokoa ematen badu ere, Hesiodoren eta bere *Teogonia*-n ainguratutako dago mitikoki.

Iztuetaren lanaren atzean Cesare Negri Milanese dago. Italiako Errenazimenduan dantzen maisua izan zen. Hain juxtu ere, haren *Villanico*-tik lau konpas eta neurri “lerratu” dira Iztuetaren doinu zaharren hainbatetara, zaldibiarak *Doinuen koadernoan* publikatuta’.

### Ez da samurra gero hori ulertzea. Nola jaso izan dira horiek guztiak?

Cesare Negri bere dantza metodoa 1602an publikatu zuen, Iztuetak bere *Gipuzkoako dantzak* eta *Doinuen koaderno*a argitaratu baino 200 urte lehenago.

Gure iritiz, *Villanico*-ren lau konpas horiek *delicatesen* moduko bat dira, kultur espresio oso dotorea, iraganean Loiolako Ignazioren ikastetxeetan landu zuten berezko jarduera pedagogikoaren lekuko.

1767an jaioa –Jesusen Konpainiaren kanporaketa urtean–, hogeita hamar urte ondoren, Iztuetak Konpainiako maisu haiekin dantzan ikasi zuen nonbait, dantzaren artean eskolatu zuen nonbait aurkitu zuen.

Hala berean, ziur aski, Iztuetak Azpeitian zegoenean dantzen maisu baten koaderno aurkitu zuen. Zaldibiarrek baina, koaderno desagerrarazi zuen hiltzean, baita dantza eta soinuen liburutako apunte guztiak ere. Hala ere, guk aztertu dugunez, ez zuen pentsatuko berak agertutako doinu zaharrak kutsatuta geratuko zirenik, Cesar Negri maisuaren lau konpasek agerian utzi dituztenak.

### Zein da zure ikaspena edo ondorioa?

Hitz batez: Iztuetak euskal munduaren aurrean –eta gipuzkoar gizartearen partikularki– antigoalean galdutako dantzen aitabitxia bezala agertu nahi izan zuen. Baina, bi mende lehenagoko Cesare Negriren obrak ipurdi-bistan utzi du Iztueta, guk demostratu dugun bezala.